

ZARAUZKO UDALAREN EUSKARA AHOLKU BATZORDEAREN ERREGELAMENDUA

Zarauzko Udalaren Euskararen Aholku Batzordea herritarren parte-hartzea bermatuko duen mekanismo egonkorra da, eta euskararen normalkuntza du langai.

Euskararen normalkuntzarako irizpide orokorrak ezarriak dauzka Zarauzko Udalak, 2012ko martxoaren 28ko Osoko Bilkuran, Urola Kostako Udal-elkartea osatzen duten gainontzeko herriekin batera UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEAREN HIZKUNTZA POLITIKA izeneko dokumentua onartu baitzuen.

Erabaki horren lehen irizpideak euskara Udalerriko berezko hizkuntza dela dio, eta bigarrenak administrazio publikoaren eginkizunetako bat euskararen erabilera normalizatzea dela, euskaldunen hizkuntza eskubideak bermatuz eta gure hizkuntza hurrengo belaunaldiei eskainiz.

Horretarako udal zerbitzuetan euskararen erabilera normalizatzea, eta udalerriaren lurralde eremuan alor guztietan euskararen erabilera normalizatzeko helburuak bere egiten ditu Udalak, eta helburu horiek lortzeko hizkuntza irizpide zehatzak landu, onartu eta moldatzeko konpromisoa hartzen du.

Testuinguru honetan kokatzen dugu Aholku Batzordearen eginkizuna, hau da, Zarautzen euskara lehen hizkuntza funtzionala izateko, Udalari hartu beharreko neurriak hartzen laguntzeko eginkizuna izango du.

Zarauzko Udalaren Euskararen Aholku Batzordea udalerrian hizkuntza-normalkuntzan diharduten norbanako, talde, elkarte eta erakunde publiko eta pribatuetako ordezkarien eta Udalaren arteko harreman-organoa izango da.

Bere osaeran, udalerriko eragileen eta diskurtsoen aniztasunaren presentzia eta parte-hartzea bermatzeko saiakera egingo da, euskara gure herriko lehen hizkuntza funtzionala izateko helburu nagusia partekatuko duten kideen artean izaera desberdinen arteko oreka landuz (diskurtso desberdinak, adin desberdinak, gizon-emakumeen arteko oreka eta udalerriko errealitate desberdinen arteko oreka).

1.- Izaera eta kokapena

Organo aholku-emailea da, eta Zarauzko Udalari atxikia KULTURA EREDUAREN Batzorde informatiboaren bitartez.

Organo aholku-emaile hau udalerrian hizkuntza-normalkuntzan diharduten norbanako, talde, elkarte eta erakunde publiko eta pribatuetako ordezkarien eta Udalaren arteko harreman-organoa izango da.

2.- Egitekoak

Gorago esan bezala, udal zerbitzuetan euskararen erabilera normalizatzea eta udalerrriaren lurralde eremuan alor guztietan euskararen erabilera normalizatzeko helburua bere egin ditu Udalak, eta helburu horiek lortzeko hizkuntza irizpide zehatzak landu, onartu eta moldatzeko konpromisoa hartu du.

Eginkizun horretan laguntzea eta aholku ematea izango da Euskararen Aholku Batzordearen betebeharra.

Horrenbestez, eginkizunak hauexek izango dira:

- ▲ Udalari Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia / Euskara Sustatzeko Ekintza Plana egokitzen laguntzea, hots, udalerriko plan estrategikoa egiteko aholkuak ematea, Udal organoek ontzat eman aurretik.
- ▲ Plan Estrategikoa onartu ondoren, hori garatzeko urteko kudeaketa-planen jarraipena egitea.
- ▲ Oro har, Zarauzko Udalak Zarauzko udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko lanekin zerikusirik duten gaiak aztertzea eta proposatzea.

Lan prozedura, berriz, hau izango da:

1. Informazio fasea: Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiari /ESEPi buruzko informazioa jasotzea.
2. Eztabaida fasea: EBPNren /ESEPen egokitasunari buruzko eztabaida eta ekarpenak adostea.
3. Proposamen fasea: udalerriko plan estrategikoa egiteko aholkuak ematea, Udal organoek ontzat eman aurretik.
4. Jarraipen fasea: jarraipen orokorra eta egindako proposamenaren betetze mailaren jarraipena.

3.- Partaideak

Udalaren Euskara Aholku Batzordeak ondorengo partaideak izango ditu:

- ▲ Batzordeburua: Zarauzko Udaleko Euskara zinegotzia.
- ▲ Kultura Ereduaren Batzordeko kideak: alderdi bakoitzeko bana.(hauetako bat Batzordeburuaren ordezkari izendatuko da).

- △ Zarauzko Udaleko Euskara Zerbitzuko arduraduna, idazkari-lanak burutuko dituen, eta normalizatailea.
- △ Udalerriko euskaltegiako zuzendariak.
- △ Udalerriaren hizkuntza-normalkuntzan eragiten duten esparruetan esanguratsuak diren herritarrak, zein elkarten ordezkariak.
 - 2 Kirol elkarte (euskara sasoian)
 - 2 establezimendu (Bai euskarari) / Ostalaritza elkarte/ Merkatari elkarte
 - 2 ikastetxe (Eskola Kontseilua/euskara arduradunak)
 - 2 eragile (EHE, AEK, Motxian, Etxebeltz, Tropela, Pagoeta, Café Torero...)
 - 2 Hedabide (HITZA, Erlo...)
 - 2 herritar aditu

4.- Egitura:

4.1 Batzorde iraunkorra

Ondoko lagunek osatuko dute.

- Í Euskara zinegotzia
- Í Azpibatzerdeen koordinatzaileak
- Í Ikuspegi orokorra izango duten kideak

4.2 Batzorde osoa

Kide guztiek osatuko dute.

4.3 Azpibatzerdeak

Azpibatzerde bakoitzak koordinatzaile bat izango du, Batzorde iraunkorreko kide izango dena.

- a) *Zerbitzu publikoak euskaraz* (Udala eta bere erakunde autonomoak, Osasun Zentroa, Lanbide, Bake epaitegia, Ertzaintza...)
- b) *3. sektorea* (ostalaritza, merkataritza, aholkularitzak, zerbitzu profesionalak...)
- c) *Haur eta gazteen erabilera* (aisialdia, kirola, irakaskuntza, familia transmisioa...)

5.- Bileren aldikotasuna

5.1 Euskararen Aholku Batzordearen *batzorde iraunkorra*:

Bere kideak hiru hilabetetik behin elkartuko dira gutxienez.

- Í Irailean datorren urteko egitasmo eta aurrekontuei buruz aholku emateko
- Í Abenduan euskararen egunaren inguruan
- Í Martxoan
- Í Ekainean

Bilera-deiak idazkariak egingo ditu idatziz, bilera-eguna baino gutxienez zortzi egun lehenago. Idazkian bileraren data, ordua eta tokia jasoko dira eta baita bileraren gai-zerrenda ere.

5.2 Euskararen Aholku Batzordearen *batzorde osoa*:

Udalaren Euskara Aholku Batzordeak urtean ohiko bi batzar izango ditu gutxienez, eta horiez gain batzordeburuak ohi kanpo dei ditzakeenak.

Bilera-deiak idazkariak egingo ditu idatziz, Batzorde iraunkorraren eskariz, bilera-eguna baino gutxienez zortzi egun lehenago. Idazkian bileraren data, ordua eta tokia jasoko dira eta baita bileraren gai-zerrenda ere.

Ohiz kanpoko deialdiak aipatutako ezaugarri berak izango ditu, eta bilera egin baino gutxienez lau egun aurretik egin beharko da deia.

5.3 Azpibatzenak

Udalaren plan estrategikoaren helburuei loturik egongo dira.

Lan-taldeak, urtean lau aldiz elkartuko dira gutxienez.

6.- Jarduteko modua

6.1. Udalarekin harremanak

Udalaren Euskara Aholku Batzordeak Kultura Ereduaren Batzorde Informatiboaren bitartez izango du Zarauzko Udalarekin izan beharreko lotura organikoa.

6.2. Zerbitzu teknikoa

Batzordearen funtzionamendu egokia bermatzeko, Zarauzko Udaleko euskara-zerbitzuaren laguntza teknikoa izango du. Euskara zerbitzuko arduraduna izango da idazkaria.

6.3. Bilera-agiriak

Udalaren Euskara Aholku Batzordearen idazkariak bileren agiria egingo du Batzordearen -edota lan-taldearen- hurrengo batzarrean onartzeko, hala badagokio.

Agiria onartu ondoren, idazkariak izenpetu egingo du, Batzordeburuaren oniritzia izanik.

Agiriak Udaleko Euskara Zerbitzuan gordeko dira eta Aholku Batzordeko kideen esku izango dira.

6.4- Mugak eta konpromisoak:

Aztertu beharreko gaien arabera, muga teknikoak, politikoak, edo eta eskuduntza mugak aipatuko dira. Eta baita ere lortuko diren emaitzekiko udalak hartu ahal izango dituen konpromisoak.

6.5 Informazioa eta formazioa:

Parte hartze prozesuaren aberastasunerako, Udalak beharrezko ikusten duen informazioa eta dokumentazio guztia aurretiaz eskainiko die EABren kideei. Informazio hau gainera ulergarria eta gertukoa izango da, beti ere ahalbideen eta baliabideen arabera.

Udalak berak edo eta EABko kideek proposatuta formazio saioak ere eskainiko ditu Udalak.